

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Txikizkako merkataritza sustatzeari buruzko jardunaldia, Sustapen Ekonomikoko ostiraletan

Sektorearen Sustapen Planaren 2018ko emaitzak eta 2019rako programa aurkeztu dira

Astelehena, 2019.eko urtarrilak 28

Nafarroako Txikizkako Merkataritza Hurbila Bultzatzeko Planaren barruan, Garapen ekonomikoaren ostiralak hitzaldi-zikloan, 2018an ezarritako neurriak eta sektorearen aurtengo itxaropenak aztertzeko bilera egingo dute, ostiral honetan (otsailak 1), 12:00etan, Kondestablearen jauregian.

Bertaratu nahi duenak [esteka honetan](#) izena eman dezake.

Maitena Ezkutarik Turismo eta Merkataritza Saileko zuzendariak emango dio hasiera ekitaldiari, eta, gero, Margari Cuelik Turismoa eta Merkataritza Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuaren zuzendariak, Merkataritza Hurbila Bultzatzeko Plana azalduko du, landa-merkataritza oinarri hartuta. Negozio-eredu honen bueltan arituko dira jardunaldiaren lehen partean. Pilar Telletxeak CEINen Enpresen Sorrera Eremuko arduradunak 2018ko kanpainaren emaitzak eta laneko metodologia azalduko ditu eta Marian Zestauk CEDERNAren garapen-agentek Baztanen eta Olga Garcíak Nafarroako Erdialdeko garapen-agentek garapen agentziek merkataritzan duten egitekoa azalduko digute.

Bi ekintzailek pasadan urtean hasitako esperientzia kontatuko digute, Koldo Uribek Altujo Dendako kudeatzaileak Erratzun eta Mayte Iriartek Erletxi Dendako kudeatzaileak Otsagabian, hain zuzen ere.

Ekitaldiaren bigarren partean, enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunari buruz mintzatuko dira. Juan Carlos Vicuña Merkataritzaren Antolamendua eta Artisautza eta Laguntza Ekonomikoen Ataleko buruak emango dio hasiera. Gero, Eva Fontechak Nafarroako Ganberaren Prestakuntza eta Laneko teknikariak Diagnostiko Komertzialak programaren emaitzak aztertuko ditu. 2018ko Diagnostiko Programako bi kidek ere hitz egingo dute, María Mendiak la Tienda de Fran establezimenduaren jabeak Artaxoan eta Iñaki Morrássek Floristería Torrens loradendaren kudeatzaileak Iruñean.

Azkenik, jardunaldiari amaiera emanez, Margari Cuelik 2019rako laneko programa azalduko du.